

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten ditu araua aldatzeko ondoko proposamenak:

1.- Aldatzea Ondasun Higiezin gaineko Zerga Ordenantza, 9. artikulua (Eskatuz gero salbuetsiko direnak) 2. puntuari honakoa GEHITUTA:

Salbuespena egingo da, baldin eta Eliza Katolikoaren jabetzako erakin horiek aipatu hitzarmenean jasota dauden Elizaren barruko jardueretarako erabiltzen badira, eta inoiz ez irabazi ekonomikoak lortzeko asmoz bada.

2.- Aldatzea Ondasun Higiezin gaineko Zerga Ordenantza, 9. artikulua (Eskatuz gero salbuetsiko direnak) 3. puntuari honakoa GEHITUTA:

Salbuespena egingo da, baldin eta legez aintzatetsita dauden Konfesio Elkarteen jabetzako erakin horiek aipatu hitzarmenean jasota dauden elkarteren barruko jardueretarako erabiltzen badira, eta inoiz ez irabazi ekonomikoak lortzeko asmoz bada.

Donostia, 2020ko abuztuaren 6an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea